



EUSKARALDIA

EUSKARALDIA ZENBAKITAN

2018ko abendua

Bezeroa:



Egilea:



Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socioeconómico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

0. AURKIBIDEA

1.	EUSKARALDIAREN UNIBERTSOA.....	3
1.1.	PARTE-HARTZAILE KOPURUA.....	4
1.2.	PARTE-HARTZAILEAK ROLAREN ARABERA.....	5
1.3.	PARTE-HARTZAILEAK ADINAREN ARABERA.....	6
1.4.	PARTE-HARTZAILEAK GENEROAREN ARABERA.....	7
2.	EUSKARALDIAREN HEDADURA BIZTANLERIAN.....	8
2.1.	EUSKARALDIAREN HEDADURA OROKORRA.....	9
2.2.	EUSKARALDIAREN HEDADURA BELAUNALDIKA.....	10
2.3.	EUSKARALDIAREN HEDADURA GENEROAREN ARABERA.....	11
3.	EUSKARALDIAREN HEDAURA HIZKUNTZ-KOMUNITATEETAN.....	12
3.1.	EUSKARALDIAREN HEDADURA EUSKAL HIZTUNENGAN.....	13
3.2.	EUSKARALDIAREN HEDADURA ERDAL HIZTUNENGAN.....	14
4.	ITURRIAK eta METODOLOGIA OHARRAK.....	15




1.

EUSKARALDIAREN
UNIBERTSOA

1.1. PARTE-HARTZAILE KOPURUA

PARTE-HARTZAILE KOPURUA. EUSKARALDIA, 2018



225.154

parte-hartzaile



Kuantitatiboki ekimenaren muina Gipuzkoan eta Bizkaian kokatu da. Aldiz, Ipar Euskal Herrian parte-hartzea apalagoa izan da. Bilbo Handiak, Donostialdeak, Urola-Kostaldeak, Arabako Lautadak (Gasteiz), Debagoienak eta Iruñerriak ekarpen kuantitatibo garrantzitsua egin dute. Era berean, nabarmentzekoa da bitarteko hiriguneko udalerrien ekarpena.

PARTE-HARTZAILE KOPURUA. EUSKARALDIA, 2018

	Ahobizi kopurua	Belarriprest kopurua	OROTARA
Araba	12.896	7.383	20.279
Gipuzkoa	75.716	20.806	96.522
Bizkaia	55.025	25.011	80.036
Nafarroa Garaia	16.007	6.327	22.334
Lapurdi	3.030	1.357	4.387
Nafarroa Beherea	1.065	286	1.351
Zuberoa	188	57	245
Hirigunea	55.147	29.241	84.388
Bitarteko hirigunea	76.457	22.324	98.781
Landa eremua	32.323	9.662	41.985
EUSKAL HERRIA	163.927	61.227	225.154


PARTE-HARTZAILE KOPURUA, ESKUALDE MAILAN. EUSKARALDIA, 2018

PARTE-HARTZE HANDIENEN 15 ESKUALDEAK



1.2. PARTE-HARTZAILEAK ROLAREN ARABERA

PARTE-HARTZAILEEN BANAKETA ROLAREN ARABERA (%). EUSKARALDIA, 2018




Parte-hartzaileen %72,8ak AHOBIZI rola bereganatu du.

164.000 AHOBIZIK eta 61.200 BELARRIPRESTek parte hartu dute ekimenean. Hau da, parte-hartzaileen ia hiru laurdenek AHOBIZI rola bereganatu du. Nagusitasun hau oso agerikoa izan da Nafarroa Beherean, Gipuzkoan, bitarteko hirigune zein landa-eremuan. Eskualde mailan, hala izan da Lea Artibain, Aralarko Iparraldean, Baztanaldean edo Urola-Kostalaldean. Salbuespen gisa, BELARRIPRESTak bi eskualdetan nagusitu dira: Ebro Garaiko Erriberan eta Tuter aldean.


AHOBIZI KOPURUA (% PARTAIDEAK), ESQUALDE MAILAN. EUSKARALDIA, 2018

AHOBIZI PROPORZIO HANDIENeko 15 ESQUALDEAK



1.3. PARTE-HARTZAILEAK ADINAREN ARABERA

PARTE-HARTZAILEEN BANAKETA ADINAREN ARABERA (%). EUSKARALDIA, 2018



30-44 urte bitarteko belaunaldiak nabarmentzeko parte-hartzea izan dute ekimenean. Batez ere, Zuberoan eta Araban.


Belaunaldi gazteen parte-hartzea garrantzitsua izan da Nafarroa Beherean, Nafarroa Garaian eta hiriguneetan. Nolanahi ere, 30 eta 44 urte bitarteko belaunaldiaren ekarpenak berebiziko garrantzia izan du, Zuberoa eta Araba herrialdeetan eta Tafallaldea, Garesaldea, Errioxa Arabarra, Estellerria bezalako eskualdeetan. Ugalkortasun handiko belaunaldia izanik, fenomenoak arreta eta analisi sakonagoa merezi du.

BELAUNALDIEN PRESENTZIA PARTE-HARTZEAN. EUSKARALDIA, 2018

16-44 urtekoen presentzia handieneko 15 eskualdeak	45-59 urtekoen presentzia handieneko 15 eskualdeak	60 urtetik gorakoen presentzia handieneko 15 eskualdeak
Errioxa Arabarra 75,8	Arabako Ibarrek 34,5	Arabako Ibarrek 19,5
Garesaldea 75,1	Tuteraldea 33,8	Tuteraldea 18,5
Iholdi Oztibarre 71,0	Gorbeia Inguruak 33,4	Gorbeia Inguruak 17,8
Baztanaldea 70,5	Trebiñoko Konderrria 33,3	Trebiñoko Konderrria 17,6
Enkartzioak 70,3	Arabako Mendialdea 30,0	Arabako Mendialdea 17,0
Estellerriko Ekialdea 70,2	Donostialdea 29,2	Donostialdea 16,0
Kantauri Arabarra 69,5	Lea Artibai 29,2	Lea Artibai 15,3
Agoitzaldea 68,9	Plentzia-Mungia 28,9	Plentzia-Mungia 15,0
Ebro Garaiko Erribera 68,7	Durangaldea 28,9	Durangaldea 14,8
Zangozerrria 68,3	Debagoiena 28,9	Debagoiena 14,8
Estellerriko Mendebaldea 67,5	Bidasoa Beherea 28,8	Bidasoa Beherea 14,5
Xiberoa 67,1	Gernika-Bermeo 28,7	Gernika-Bermeo 14,3
Bidasoa Garaia 66,6	Debarbarrena 28,7	Debarbarrena 13,9
Iruñerria 65,7	Arrati Nerbioi 28,3	Arrati Nerbioi 13,8
Arabako Lautada 65,7	Goierri 28,2	Goierri 13,7

1.4. PARTE-HARTZAILEAK GENEROAREN ARABERA


PARTE-HARTZAILEAK ADINA ETA GENEROAREN ARABERA.
EUSKARALDIA, 2018.



Parte-hartzearen %62,2a emakumezkoen eskutik etorri da. Emakumezkoak nagusi izan dira herrialde eta eskualde guztietan.

Ekimenean emakumezkoen parte-hartzeak berebiziko garrantzia izan du, batik bat, 60 urtetik beherako belaunaldietan. Emakumezkoen nagusitasuna nahiko homogeneoa izan da lurralde osoan, baina zertxobait handiagoa Enkartzazioetan, Errioxa Arabarran, Bidaxuneko lurraldea edota Arrati Nerbioin.

EMAKUMEZKOEN NAGUSITASUNA PARTE-HARTZEAN (%). EUSKARALDIA, 2018




A decorative graphic featuring a large, dark blue circle on the right side containing the number '2.' in a light gray, sans-serif font. To the left of this circle, a cluster of approximately 15 small, colorful dots in various colors (red, orange, yellow, green, cyan, magenta, black) is scattered across the light gray background.

2.

EUSKARALDIAREN
HEDADURA
BIZTANLERIAN

2.1. EUSKARALDIAREN HEDADURA OROKORRA

PARTE-HARTZE MAILA (% BIZTANLERIA).
EUSKARALDIA, 2018



Euskal herritarren %8,5ak
EUSKARALDIAn parte-hartu du.

Tokian toki, ekimenak biztanleriaren gaineko hedadura-maila desberdina izan du.



EUSKARALDIAn parte-hartu duten herritar kopurua 16 urtetik gorako biztanleriarekiko proportzioan aztertuta, ekimenaren hedadura oso heterogeneoa izan da lurraldean. Hedadura oso handia izan da Gipuzkoan eta bitarteko hiriguneko udalerrietan, eta hedadura mugatua, aldiz, Lapurdin edo Zuberoan.

Biztanleriaren gaineko hedadura handieneko 10 eskualdeen artean, bost gipuzkoarrak dira.

Eskualde mailan, biztanleriaren gaineko ekimenaren hedadura oso garrantzitsua izan da Debagoienan, Urola-Kostaldean, Tolosaldean, Aralarko Iparraldean, Lea Artibain eta Goierriin.


PARTE-HARTZE MAILA (% BIZTANLERIA), ESKUALDE MAILAN. EUSKARALDIA, 2018

PARTE-HARTZE MAILA (%)
HANDIENENKO 15 ESKUALDEAK



2.2. EUSKARALDIAREN HEDADURA BELAUNALDIKA

BIZTANLERIAREN GAINEKO HEDADURA-MAILA (%), BELAUNALDIKA. EUSKARALDIA, 2018



Ekimenaren hedadura-maila handia izan da 16-29 urte (%13,4) eta 30-44 urte (%12,3) bitartean. Belaunaldi hauen gaineko hedadura nabarmentzekoa da Gipuzkoan eta bitarteko hirigunean.


EUSKARALDIko parte-hartzea biztanleriarekiko proportzioan belaunaldika aztertuta, azpimarratzekoa da orokorrean 16 eta 44 urte bitarteko biztanleriarengan izandako hedadura. Adin tarte horretan, nabarmena izan da Debagoiena, Urola-Kostaldea, Aralarko Iparraldea, Arabako Mendialdea edo Tolosaldea bezalako eskualdeetan lorturiko hedadura-maila.

BIZTANLERIAREN GAINEKO HEDADURA-MAILA (%), BELAUNALDIKA. EUSKARALDIA, 2018

16-44 urtekoen artean hedadura handieneko 15 eskualdeak	45-59 urtekoen artean hedadura handieneko 15 eskualdeak	60 urtetik gorakoen artean hedadura handieneko 15 eskualdeak
Debagoiena 36,7	Debagoiena 27,0	Urola-Kostaldea 10,9
Urola-Kostaldea 32,4	Urola-Kostaldea 23,9	Debagoiena 10,7
Aralarko Iparraldea 31,5	Goierri 21,1	Gernika-Bermeo 9,9
Arabako Mendialdea 29,9	Lea Artibai 20,8	Lea Artibai 9,1
Tolosaldea 29,8	Tolosaldea 20,7	Tolosaldea 9,1
Lea Artibai 29,4	Gernika-Bermeo 20,2	Goierri 8,7
Goierri 28,1	Aralarko Iparraldea 19,3	Debabarrena 8,7
Baztanaldea 28,0	Debabarrena 18,9	Aralarko Iparraldea 7,5
Erronkari-Zaraitzu 27,5	Gorbeia Inguruak 18,1	Bortziriak 6,6
Gernika-Bermeo 26,4	Bortziriak 16,8	Plentzia-Mungia 6,5
Gorbeia Inguruak 26,3	Arrati Nerbioi 16,4	Gorbeia Inguruak 6,5
Bortziriak 25,0	Arabako Mendialdea 15,1	Sakana 6,4
Arrati Nerbioi 24,5	Durangaldea 14,3	Arrati Nerbioi 6,4
Sakana 23,9	Donostialdea 13,7	Ultzamaldea 5,8
Debabarrena 23,7	Sakana 13,3	Durangaldea 5,2

2.3. EUSKARALDIAREN HEDADURA GENEROAREN ARABERA

BIZTANLERIAREN GAINEKO HEDADURA-MAILA (%), GENEROAREN ARABERA. EUSKARALDIA, 2018




Emakumezkoen artean ekimenaren hedadura-maila %10,2koa izan da; gizonezkoen artean, ordea, %6,5koa. Genero ikuspegitik desberdintasun handiak daude.

Biztanleriarekiko proportzioan ekimenaren hedadura-maila handiagoa izan da emakumezkoen artean. Hedadura-mailaren gaineko genero diferentzia handienak, hain zuzen ere, ekimenak hedadura handieneko eskualdeetan metatzen dira: Aralarko Iparraldean, Gorbeia Inguruetan, Urola-Kostaldean, Lea Artibain, Arabako Mendialdean edota Debagoienan. Bestalde, bere burua ez-binariotzat aintzat hartu duten 1.927 pertsona daude, iturri ofizialen arabera biztanleriaren generoarekin alderatu ezin daitezkeenak.

BIZTANLERIAREN GAINEKO HEDADURA-MAILA (%), GENEROAREN ARABERA. EUSKARALDIA, 2018

Emakumezkoen artean hedadura handieneko 15 eskualdeak	Gizonezkoen artean hedadura handieneko 15 eskualdeak
Debagoiena 29,7	Debagoiena 19,9
Urola-Kostaldea 28,7	Urola-Kostaldea 18,3
Aralarko Iparraldea 26,8	Tolosaldea 16,5
Lea Artibai 25,0	Goierrri 15,1
Tolosaldea 24,8	Lea Artibai 14,6
Goierrri 24,4	Gernika-Bermeo 14,1
Gernika-Bermeo 23,6	Aralarko Iparraldea 13,7
Gorbeia Inguruak 23,2	Debabarrena 13,4
Arrati Nerbioi 21,0	Bortzirriak 12,9
Debabarrena 20,7	Gorbeia Inguruak 12,4
Arabako Mendialdea 20,4	Baztanaldea 11,9
Bortzirriak 20,2	Arrati Nerbioi 11,6
Sakana 19,5	Sakana 11,3
Bidasoa Garaia 19,3	Plentzia-Mungia 10,5
Baztanaldea 18,5	Arabako Mendialdea 10,3

HEDADURA-MAILA EMAKUMEZKOENGAN (% EMAK. BIZTANLERIA)




A decorative graphic featuring a large, dark blue circle on the right side containing a large, light gray number '3.' To the left of this circle, there is a cluster of smaller, colorful dots in various colors including red, orange, yellow, green, cyan, magenta, and black. The background is a light gray gradient.

3.

EUSKARALDIAREN
HEDADURA
HIZKUNTZ-
KOMUNITATEETAN

3.1. EUSKARALDIAREN HEDADURA EUSKAL HIZTUNENGAN

PARTE-HARTZAILE KOPURUA (% EUSKAL HIZTUNAK).
EUSKARALDIA, 2018



Euskal hiztunen %14,7ak
EUSKARALDIAn parte-hartu du.



Euskal hiztunen unibertsoan ere ekimenaren tokian tokiko hedadura-maila desberdina izan da.

EUSKARALDIko parte-hartze maila tokiko euskal hiztunekin alderatuz, ekimenaren hedadura heterogeneoa izan da ere lurralde batetik bestera. Euskal hiztunen parte-hartze maila handia izan da Gipuzkoan (%19), bitarteko hirigunean (%18,9) eta landa-eremuan (%16,3).

Eskualde mailan, euskal hiztunen gaineko hedadura-maila handiena Arabako Mendialdean, Debagoienan, Erronkari-Zaraitzun, Auñamendin edo Irunberrialdean kokatu da. Euskal hiztunen unibertsoan jarrera aktiboena eskualde hauetan metatu da, alegia.


PARTE-HARTZE MAILA (% EUSKAL HIZTUNAK), ESKUALDE MAILAN. EUSKARALDIA, 2018

PARTE-HARTZE MAILA (%) HANDIENKO 15 ESKUALDEAK



3.2. EUSKARALDIAREN HEDADURA ERDAL HIZTUNENGAN

PARTE-HARTZAILE KOPURUA (KOP./100 ERDAL HIZTUNEKO).
EUSKARALDIA, 2018





Erdal hiztunek Gipuzkoan beste inon baino gehiago somatuko zuten EUSKARALDIaren presentzia.

EUSKARALDIko parte-hartze maila erdal hiztunen komunitatearekin alderatuta, Gipuzkoan eta bitarteko hirigunean somatuko zuten EUSKARALDIaren presentzia handiena. Kontrara, Lapurdin, Nafarroa Garaian edo Zuberoan ekimenaren presentzia txikia somatuko zuten. Era berean, hiriguneetan presentzia ahulagoa izan da.

Eskualde mailan, erdal hiztunekiko proportzioan EUSKARALDIaren presentzia handiena Lea Artibain, Urola-Kostaldean, Tolosaldean, Gernika-Bermeon, Debagoienan eta Goierriin eman da.

PARTE-HARTZAILE KOPURUA (KOP./100 ERDAL HIZTUNEKO), ESKUALDE MAILAN. EUSKARALDIA, 2018

ERDAL HIZTUNEN GAINEKO HEDADURA HANDIENEN 15 ESKUALDEAK



A decorative graphic featuring a large, dark blue circle on the right side containing the number '4.' in a light gray, sans-serif font. To the left of this circle, a cluster of approximately 15 small, colorful dots in various colors (red, orange, yellow, green, cyan, magenta, black) is scattered across the light gray background.

4.

ITURRIAK eta
METODOLOGIA
OHARRAK

1. EUSKARALDIAREN UNIBERTSOA

1.1. PARTE-HARTZAILE KOPURUA

Definizioa: EUSKARALDIAn izena eman duen pertsona kopurua.

Neurri-unitatea: kopuru gordina.

Iturria eta data: EUSKARALDIA, 2018.

Oharra: partaidetza erregistratzerakoan adina gaizki bete dituzten kasu batzuk topatu dira. Horien artean, kasu batzuetan adina ondorioztatu eta aintzat hartu dira. Nolanahi ere, 17 erregistro ez dira aintzat hartu, adin desegokia (16 urtetik behera) edo adin ezinezkoak zituztelakoan. Batzorderik sortu ez den udalerrietako daturik ez dago eta udalerrri hauetako partaideek inguruko udalerrietan eman dute izena.

1.2. PARTE-HARTZAILEAK ROLAREN ARABERA

Definizioa: AHOBIZI edo BELARRIPREST gisa izena eman duen pertsona kopurua, EUSKARALDIko parte-hartzaile guztiekiko proportzioan (%).

Neurri-unitatea: %.

Iturria eta data: EUSKARALDIA, 2018.

Oharra: datu gabeko lurralde-eremuetan ez dago EUSKARALDIAn parte hartu duen pertsonarik.

1.3. PARTE-HARTZAILEAK ADINAREN ARABERA

Definizioa: EUSKARALDIAn izena eman duen pertsona kopurua belaunaldiaren arabera, EUSKARALDIko parte-hartzaile guztiekiko proportzioan (%).

Neurri-unitatea: %.

Iturria eta data: EUSKARALDIA, 2018.

Oharra: datu gabeko lurralde-eremuetan ez dago EUSKARALDIAn parte hartu duen pertsonarik.

1.4. PARTE-HARTZAILEAK GENEROAREN ARABERA

Definizioa: EUSKARALDIAn izena eman duen pertsona kopurua generoaren arabera, EUSKARALDIko parte-hartzaile guztiekiko proportzioan (%).

Neurri-unitatea: %.

Iturria eta data: EUSKARALDIA, 2018.

Oharra: datu gabeko lurralde-eremuetan ez dago EUSKARALDIAn parte hartu duen pertsonarik.

2. EUSKARALDIAREN HEDADURA BIZTANLERIAN

2.1. EUSKARALDIAREN HEDADURA OROKORRA

Definizioa: EUSKARALDIAn izena eman duen pertsona kopurua, hamasei urtetik gorako biztanleriarekiko proportzioan (%).

Neurri-unitatea: %.

Iturria eta data: EUSKARALDIA, EUSTAT, INE, INSEE eta GAINDEGIA, 2018.

Oharrak: azken biztanleria datuak aintzat hartu dira, 2017 urteari dagokion udal errolda Hego Euskal Herrian, 2015 urteari dagokion Biztanleria Zentsua Ipar Euskal Herrian. Udalerrri gutxi batzuetan, EUSKARALDIko izen-emate kopurua herritar egoiliarren kopurua gainditu duenez %100aren balioa gainditzen da.

2.2. EUSKARALDIAREN HEDADURA BELAUNALDIKA

Definizioa: EUSKARALDIAn izena eman duen pertsona kopurua belaunaldiaren arabera, adin bereko biztanleriarekiko proportzioan (%).

Neurri-unitatea: %.

Iturria eta data: EUSKARALDIA, EUSTAT, INE, INSEE eta GAINDEGIA, 2018.

Oharrak: azken biztanleria datuak aintzat hartu dira, 2017 urteari dagokion udal errolda Hego Euskal Herrian, 2015 urteari dagokion Biztanleria Zentsua Ipar Euskal Herrian. Udalerrri gutxi batzuetan, EUSKARALDIko izen-emate kopurua herritar egoiliarren kopurua gainditu duenez %100aren balioa gainditzen da.

2.3. EUSKARALDIAREN HEDADURA GENEROAREN ARABERA

Definizioa: EUSKARALDIAn izena eman duten pertsona kopurua generoaren arabera, genero bereko biztanleriarekiko proportzioan (%).

Neurri-unitatea: %.

Iturria eta data: EUSKARALDIA, EUSTAT, INE, INSEE eta GAINDEGIA, 2018.

Oharrak: azken biztanleria datuak aintzat hartu dira, 2017 urteari dagokion udal errolda Hego Euskal Herrian, 2015 urteari dagokion Biztanleria Zentsua Ipar Euskal Herrian. Udalerri gutxi batzuetan, EUSKARALDIko izen-emate kopurua herritar egoiliarren kopurua gainditu duenez %100aren balioa gainditzen da.

3. EUSKARALDIAREN HEDADURA HIZKUNTZ-KOMUNITATEETAN

3.1. EUSKARALDIAREN HEDADURA EUSKAL HIZTUNENGAN

Definizioa: EUSKARALDIan izena eman duen pertsona kopurua, hizkuntz-gaitasunaren arabera euskaldun eta ia-euskaldunen komunitatearekiko proportzioan (%).

Neurri-unitatea: %.

Iturria eta data: EUSKARALDIA, Euskarabidea, Euskararen Erakunde Publikoa, Eusko Jaurlaritz, Soziolinguistika Klusterra, EUSTAT, INE, INSEE eta GAINDEGIA, 2018.

Oharrak: euskal hiztunen komunitatean euskaldunak eta ia-euskaldunak aintzat hartu dira. Hizkuntz-gaitasunaren araberrako daturik ez dago Trebiñu eta Turtzioz Villaverderako. Euskal A.E.ko datuak 2016 urteari dagozkio, gainontzeko lurraldeetakoak 2011 urtekoak dira. Nafarroa Garaian eskualde mailako datuekin estimatu dira euskal hiztunak udalerrira, eta Ipar Euskal Herriko udalerrietan, Soziolinguistikazko Inkestak eskaintzen dituen lurralde-eremuen arabera estimatu dira.

3.2. EUSKARALDIAREN HEDADURA ERDAL HIZTUNENGAN

Definizioa: EUSKARALDIan izena eman duen pertsona kopurua, hizkuntz-gaitasunaren arabera erdaldunen komunitatearekiko proportzioan (%).

Neurri-unitatea: %.

Iturria eta data: EUSKARALDIA, Euskarabidea, Euskararen Erakunde Publikoa, Eusko Jaurlaritz, Soziolinguistika Klusterra, EUSTAT, INE, INSEE eta GAINDEGIA, 2018.

Oharrak: Hizkuntz-gaitasunaren araberrako daturik ez dago Trebiñu eta Turtzioz Villaverderako. Euskal A.E.ko datuak 2016 urteari dagozkio, gainontzeko lurraldeetakoak 2011 urtekoak dira. Nafarroa Garaian eskualde mailako datuekin estimatu dira euskal hiztunak udalerrira, eta Ipar Euskal Herriko udalerrietan, Soziolinguistikazko Inkestak eskaintzen dituen lurralde-eremuen arabera estimatu dira.